

IRAKASKUNTZA-GIDA

2020/21

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25085 - Esku-hartze Psikosoziako Programen Ebaluazioari Aplikatutako Diseinuak

ECTS kredituak: 4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetan landuko diren edukiak eskuhartze psikosozialaren eremuan kokatzen dira. Zehazki, eskuhartze psikosozialaren eremuan programa baten ebaluazioa egiterakoan diseinu nahiz analisi estatistiko nagusienak azaltzea da helburu nagusia.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Esku-hartze psikosoziako programen ebaluazioaren metodologiaren oinarriak ezagutzea.
2. Ebaluazioaren ereduak, etapak eta motak ezagutzea.
3. Esku-hartze programa bat ebaluazioa diseinatzeko gai izatea: helburuak formulatzea, datuak biltzea, emaitzak aztertzea eta interpretatzea.
4. Programen ebaluazioko ahozko zein idatzizko txosten teknikoak aztertzeko eta egiteko gai izatea.
5. Esku-hartzearen eta ebaluazioaren oinarri deontologikoak ezagutzea.
6. Programen ebaluazioarekin lotzen diren iturri dokumentalak erabiltzeko gai izatea eta informazioa eskuratzeko estrategiak menperatzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Gaia. Programen ebaluazioaren oinarriak.
2. Gaia. Programen ebaluazioaren kontzeptua eta motak.
3. Gaia. Programen ebaluazioaren faseak eta datuak biltzeko lanabesak.
4. Gaia. Diseinuak eta datu analisirako estrategiak.
5. Gaia. Meta-analisisa programa psikosozialen ebaluazioan.
6. Gaia. Gizarte politiken ebaluazioa.
7. Gaia. Programen ebaluazioa eremu zehatzetan: delinkuentzia, inmigrazioa, haurtzarora, drogodependentzia etab.

METODOLOGIA

Landuko diren aktibitateak:

- 1.- Klase magistralak.
- 2.- Esku-hartze psikosozial baten ebaluazio proiektua.
Jarduera honen helburua ebaluazio proiektu bat diseinatzea da. Horretarako ikasleak eskola teorikoetan landutako ezagutzak erabili beharko ditu.
- 3.- Datu analisien eta emaitzen interpretazio ariketak.
Jarduera honen bidez ikerkuntza aplikatuan gehien erabiltzen diren test estatistikoak landuko dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	20	2	4		16		3		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	30	3	6		24		4,5		

Legenda: M: Magistrala
GL: Laborategiko p.
TA: Tailerra
S: Mintegia
GO: Ordenagailuko p.
TI: Tailer Ind.
GA: Gelako p.
GCL: P. klinikoak
GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 70

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio jarraia: Irakasgaiaren ebaluazioa idatzizko azterketa baten (%30) eta ebaluazio proiektu baten (%70) bidez egingo da.

Proiektua garatzeko gehienez 4 pertsonako taldeak osatuko dira. Ebaluazio proiektuak hiru zati ditu:

1. Proiektuaren eremuaren aukeraketa: Errebisio dokumentala (jasoko den lehen lana)
2. Ebaluatuko den programaren deskribapen zehatza (jasoko den bigarren lana)
3. Ebaluazio proposamena (jasoko den hirugarren lana)

Klaseetako azken astean gelan alde zehaztuko den ordu eta egunean, talde bakoitzak beste ikasleentz aurrean

esku-hartze eta ebaluazio proiektua aurkeztu beharko du. Azken nota irakasleak ipiniko du.

Ebaluazio osoa: azterketa teoriko-praktikoaren(100%).

Irakasgai honetan ikasleek azterketa deialdiari uko egin diezaiokete fakultateko idazkaritza orokorrean irakasleari zuzendutako instantzia aurkeztuz, beranduenez azterketen epe ofizialaren hasiera baino 10 egun lehenago. Ikasturte batetik bestera ez da ezer gordetzen ez teoria alorrean ezta alor praktikoan ere.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio osoa: azterketa teoriko-praktikoaren(100%).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgai beharrezkoak diren material guztiak eskuragarri egongo dira E-gela plataforman.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Alonso, E., Pozo, C. y Marcos, M. J. (2008). Intervención psicosocial y evaluación de programas. Madrid: Formación Alcalá.

Anguera, M.T., Arnau, J., Ato, M., Martínez, R., Pascual, J. y Vallejo, G. (1995). Métodos de investigación en psicología. Madrid: Síntesis.

Fernandez-Ballesteros, R. (1996). Evaluación de programas. Una guía práctica en ámbitos sociales, educativos y de salud. Madrid: Síntesis.

Reboloso, E., Fernández-Ramírez, B. y Cantón, P. (2008). Evaluación de programas de intervención social. Madrid: Síntesis.

Pozo, C., Alonso, E. y Hernández, S. (2004). Teoría, modelos y métodos en Evaluación de programas. Granada: Grupo Editorial Universitario.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Bryman, A. y Cramer, D. (1990). Quantitative data analysis for social scientists. London: Routledge.

Campbell, D. y Stanley, J. (1966). Diseños experimentales y cuasiexperimentales en la investigación social. Buenos Aires: Amorrortu, 1982.

Cook, T.D. y Campbell, D. (1979). Quasi-experimentation. Design and Analysis issues for field setting. Chicago, IL: Rand McNally.

Dendaluce, I. (Coor.) (1988). Aspectos metodológicos de la investigación educativa. Madrid: Narcea.

Aldizkariak

.

Interneteko helbide interesgarriak

Sociedad Española de Evaluación de Políticas Públicas:
<http://www.sociedadevaluacion.org/website/>

American Evaluation Association: <http://www.eval.org/>

Resources for Methods in Evaluation and Social Research: <http://gsociology.icaap.org>

Sociedad Europea de Evaluación: <http://www.europeanevaluation.org/>

OHARRAK